

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

594/2024 Foru Agindua, azaroaren 21ekoa. Iker Urbina Fernándezen aldeko bitarteko izendapena egitea Kanpezuko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko

2024ko azaroaren 15eko sarrera datarekin, Kanpezuko Udalak Iker Urbina Fernándezen bitarteko izendapena egiteko eskatu zuen, Kanpezuko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanposturako, 2024ko azaroaren 18tik aurrerako ondorioekin.

Espedientean jasota dago iragarki bat argitaratu zela ALHAOn (97. zk., 2024ko abuztuaren 28koa), lanpostua bete zezala estaturako gaikuntza duen funtzionario batek. Eskaerak aurkezteko epean, ordea, ez zen bat ere jaso. Hori dela eta, udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion, 2024ko urriaren 28an, hautagai bat proposatu zezala estaturako gaikuntza duten funtzionarioen lanpostuak betetzeko lan poltsatik.

Espedientean jasota dago, halaber, Iker Urbina Fernández hautagai izatearen alde Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak egindako 2024ko azaroaren 11ko proposamena. Hura Euskal Autonomia Erkidegoan estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioei gordetako lanpostuak bitarteko funtzionarioen bidez betetzeko hautagaien zerrendan dago.

Bat etorri 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua xedatutakoarekin:

1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estaturako gaikuntza duen toki administrazioeko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, autonomia erkidegoek estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko gisa betetzeko hautagaien zerrenda propioa eratu ahal izango dute, beren lurralde eremuan.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

“Lanpostua behin betiko bete, titularra itzuli kapitulu honetan jasotako kasuetan, edo behin-behineko izendapena eginez gero, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketan, lanpostua behin-behineko funtzionario edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu, automatikoki kargugabetuko da lanpostu hori betetzen ari zena”.

Bat etorri Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikuluan xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana, salbu eta kasuan kasuko deialdia argitaratu bada jada eta 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluko epeak betetzen badira.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Iker Urbina Fernández izendatzea, 2024ko azaroaren 18tik aurrerako ondorioekin, Kanpezuko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa betetzeko, hura legez bete arte, estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Kanpezuko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 21a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren jarduneko zuzendaria
JON ANDA LÁZPITA